

KANALAK

PulsSOS enpresak ez du kanal propiorik izango eta dependentzia nabaria izango du azpikontratatuetan. Azpikontratatu txikiak izango dira, hau da banakakoak edo autonomoak, eta gure hornidura eta banaketa sarea osatuko dute.

Hornidura sailean 4 gidariz osaturiko talde batekin egingo ditugu bidaia kontratuak eta lehengaez hornitzen lagunduko gaituzte. Hauek izango dira bakoitzaren funtzioak:

- **Gidaria1:** Lehen gidariak izango du funtsezko funtzioa, honek gure azken produkturako osagai elektronikoak ekarriko dituelako.
- **Gidaria2:** Bigarren gidariak gure pultserak ekoizteko plastiko-granuluak ekarriko ditu gure pultseren zorroak eta estrukturak ekoizteko
- **Gidaria3 eta Gidaria4:** Hirugarren eta laugarren gidariak izango dute beste funtzio garrantzitsua. Gure inguruan ez dira aurkitzen litiozko bateriak egiten dituzten enpresak, ondorioz Frantziara joan beharko dute gure enpresa bateriez hornitzeko. Gainera, bide batez, gure ekoiztako produktuak ere banatuko dituzte bidaiei etekin eta errendimendu handiena ateratzeko.

Banatze sailak ere 4 gidari izango ditu (Gidaria3 eta Gidaria4 barne) eta izenak dioen bezala banaketa funtzioan parte hartuko dute. Ez dute izango helmuga espezifikorik, banaketa sailean bezeroaren arabera izango delako helmuga. Baina banaketa sailean 2 talde bereizuko ditugu: Garraio nazionala eta internazionala.

Garraio nazionalean: Gidaria5 eta Gidaria6

Garraio internazionalen: Gidaria3 eta Gidaria4 (azken hauek oinarritz beste herrialdeetara joko duelako).

Sail espezifikoko honetan bi garraio mota egongo dira eta edozein garraiolari izan beharko du gai garraio mota hauek aurrera eramateko.

Premiazko garraioa: Premiazko garrarioak lehentasunezko eskariak izango dira, hau da premiazko eskariak asetzeko.

Garraio auskorra: Garraio askorak lehentasunezkoen alderantzizkoa da, hau da behar den denbora hartu dezake baina baldintza bat bete behar da: produktua kalterik gabe helmugara iristea.